

Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko historian sortutako bibliografia-ekoizpena digitalizatuko du "Ondarenet"-en bidez

BILBO, 2 (EUROPA PRESS)

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak informazio-sistema batean oinarritutako "Ondarenet" asmo handiko proiektua abiaraztea erabaki du. Ondarenet-en helburua euskal ondare digitala osa dezaketen baliabide digitalak (web orriak, foroak eta banaketa-zerrendak eta edukiei lotutako fitxategi digitalak) atzitzea izango da, bai eta erakunde-gordetegi osatu ere. "Hau da, azken hamarkadetan teknologia berriak indarrez sartzean eta jakintza-diziplina anitz eta askotarikoei buruz euskarri digital berrien bitartez osatuz joan den euskal ondare digitalaren multzoa bildu, zaindu eta hedatuko duen artxibategi elektroniko handia sortzean datza", Arantza Arzamendi Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen zuzendariak eta Francisca Pulgar Liburutegien Zerbitzuko arduradunak Bilbon egindako aurfkezpenean azaldu dutenez.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako proiektua bat dator 2010. urtean herritar guztiek eskuratzeko moduan egongo diren sei milioi dokumentuz osatutako Liburutegi digitala sortzeko Europar Batasunak duen estrategiarekin. Europa mailako ekimen honen helburua bibliografia eta artxibo-gordailuak formatu bateragarrietan digitalizatzea da.

Zentzu honetan, web ingurunean sortutako ondare digitala berreskuratu eta babesteko asmoarekin beste herrialde batzuek abian jarritako antzeko ekimenei jarraitzen die Ondarenet-ek, besteak beste, Pandora (Australiako Liburutegi Nazionala), Minerva (Europar Batasuna), Internet Archives (Erresuma Batua) edo Padicat (Kataluniako Liburutegi nazionala).

Ondarenet Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako "Ondare digitala: berreskuratu, zaindu eta hedatzeko estrategiak" izenburupeko jardunaldien barruan aurkeztu da. Jardunaldi hauetan izen handiko bi txostengilek esku hartu dute: Allan Arvidsonek, (The Royal Library, The National Library of Sweden, Stockholm) eta Luis Colladok (Google Book Search-en Espainia eta Portugalera Zuzendaria) eta internet bidez ezagutza unibertsalera heltzeko Google Book Search proiektua aurkeztu dute.

EUSKADIKO LIBURUTEGIEN LEGEA

Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legea da euskal kultura ondarea digitalizatzeko proiektuaren lege-esparrua. "Euskadiko Liburutegia euskal ondare digitalaren egoitza izango dela" ezartzen du Lege horrek 27.4. artikuluan. Era berean, Euskadiko Liburutegiaren eginkizunei buruz (29.c. artikulua) adierazten da "euskal ondare digitala sortu, babestu eta zabaltzeko eta ondare horretarako irispidea" bermatzeko mekanismo egokiak izan beharko dituela.

Euskadiko Liburutegien Legea onartzearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EJI Eren (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea) laguntzarekin eta lankidetzarekin, Kulturaren Euskal Planaren arlo digitalaren ekintzen artean barne hartutako nahi handiko proiektu berri honi ekin zion. Lehenengo urtean zehar informazio-sistema abiarazi da, dagozkion froga eta egiaztapen estandarrak eginez.

Urtebetez jardun ondoren, Kultura Sailak garrantzi handiko proiektua sustatzea lortu du, eta egun, baliabideak deskribatzen ari dira nazioarteko estandarrei jarriki. Horrela, Ondarenet erakunde-gordetegi bat bihurtuko da, eta bertan, era guztietako web-orriez gain, edonolako dokumentu digitalizatuak gorde ahal izango dira.

Informazioa atzitu, babestu eta antolatzeko erabilitako tresnei dagokienez, International Internet Preservation Consortium (IIPC) erakundeak onetsiriko eta nazioarteko estandarrak betetzen dituzten tresnen bidez garatzen ari da.

BILAKETAK

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak "ad hoc" ezarri dituen sailkapen baten arabera atzitu, artxibatu eta indexatutako webguneez osatuta dago Ondarenet-en datu-basea, eta 12 gai handitan banatuta: Arteak, Zientzia eta Teknologia; Euskal kultura; Euskara; Aisia eta kultura; Politika eta Gobernuak; Enpresa, Aisia eta kultura; Ekonomia eta negozioak; Hezkuntza eta ikerketa; Osasuna, Gizarteak, Informazioaren Gizarteak.

Gaur egun, atzitu eta alta eman diren 14 "url"-ez osatutako laginketa erabiltzen ari da, eta euskal kulturaren inguruko 400 helbide baino gehiagoz jabetu da. Hemendik aurrera, webgunetik atzitzen eta, ondoren, dokumentazioaren azterketa eta indizazioa egiten jarraituko da.

Kultura Sailak abian jarritako ekimen hau Euskadiko Liburutegi Digitalaren ekintza nagusia da. Ekimenak, historian zehar sortutako eta euskal kultur ekoizpenaren muina osatzen duten bibliografia-funts publiko eta pribatuak digitalizatzea barne hartzen du, hau da, paperezko euskarri tradizionalen sortutako bibliografia-ekoizpen osoa formatu digitalean jasotzea.

Proiektu hau abian dago, jada, eta egile-eskubiderik ez duten bibliografia-funts historikoak eta funts historiko eta instituzionalak digitalizatzen ari dira. Proiektu handi honen hurrengo urratsean egile-eskubideak dituzten bibliografia-funtsak digitalizatzeari ekingo zaio, eta horretarako, horien jabe diren partikularrekin eta erakundeekin akordioak lortu beharko ditu Eusko Jaurlaritzak.